

B euskararen BERRIPAPERA

Euskararen jarraipena: FAMILI PROGRAMA

Euskararen biziraupena eta normalizazioa bermatzeko familia eta eskola ezinbestekoak ditugu gaur egun. Gurasoek seme-alabei euskaraz hitz egitea da haur eta gazteek euskaraz egiteko bide egoki, seguru eta naturalena, gurasoen egitekoa ezin baita ordezkatu, ezta hizkuntza kontuetan ere. Hori horrela, 1995ean, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta HABEK *famili programa* izeneko euskararen jarraipenerako oinarriak jarri zituzten. Hori aurrera eramateko, Gipuzkoa eta Bizkaiko tipologia ezberdinetako bost herri aukeratu ziren eta programa pilotuak abiarazi ziren bertan. Aukeratutako herriak Tolosa, Legazpi, Zumarraga, Urretxu eta Durango izan ziren. Programa hiru ataletan banaturik dago eta gurasoak zein haurrak hartzen ditu kontuan. Lehen aldi honetan, programa euskaraz dakiten gurasoei zuzenduta dago.

Sentiberatzea

Sentiberatzearen eta informazioaren atalerako, abiapuntu moduan, *Ahoz aho, belaunz belaun* kanpaina dago. Hala ere, herriotan sentiberatze eta informazio arloan egiten den lana ez da kanpaina honekin bukatzen. Hortik hasita, herri bakoitzak ikusi behar du sentiberatze eta informazio lan hori nola bideratu behar duen: herriko komunikabideen bidez, hitzaldien bidez, guraso eta haurrei zuzendutako eskutitzen bidez, etabar.

Gurasoentzako euskarazko eskolak

Hizkuntza gaitasuna dela eta, ohiko ikastaroak eskaintzeaz gain, HABEK plan berezi bat jarri du martxan: *Solasean eta jolasean* izeneko egitaraua. Egitarau horrek hainbat modulu izango ditu; aurrenekoa 20 ordu ingurukoa hain zuzen, ipuin kontaketa buruzkoa da.

Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko ekintzak, oro har, udalak, ikastetxeek edota elkarteek antolatutakoak izan ohi dira, nahiz eta bakoitzak maiz bere bidetik jotzen duen. Euskararen jarraipenerako programetan txertatzeko ekintzen antolaketan, beraz, ezinbestekoa da udalerrian arlo honetan la-



✕ *Eskolaz kanpoko ekintzen artean aisialdiko ekintzak eta kirola dira arlorik nagusienak*

Plan honen helburua da haurrekin harreman gehien dutenei, gurasoei, euskara hurbiltzea, kontuan izanik gurasoek arazoak izaten dituztela ohiko euskaltegiak eskaintzetara heltzeko. Ikastaro hauek aukera ematen diete helduei haurrak eskolan ikasten dituzten abestiak, hitzak, ipuintxoan lerro nagusiak, etabar, modu errazean ezagutzeko.

nean diharduen orenen partaidetza eta antolatzen diren jarduerak ororen koordinazioa. Hau da, egitasmoaren erantzule nagusia udala izanagatik, udalerriko ikastetxe eta elkarten eskuhartzea lagungarri ez zik beharrezkoa ere bada.

Eskolaz kanpoko ekintzen artean aisialdiko ekintzak eta kirola dira arlorik nagusienak, batetik guztiengana iristeko aukera ematen dutelako eta

S U M A R I O A

- 1 Euskararen jarraipena: Famili programa
- 2 Laburrak
Joxe Azurmendi Otaegi
Agenda
- 3 Bidegileak aurki kalean
Expolangues 98
- 4 Euskararen Aholku Batzordea
Lehen begiratuan

bestetik euskarari sarbidea ematen diotelako. Tailerrak, bideo edo zine emanaldiak, kontakizunak, antzerkia, dantza, udalekuak, txangoak, akanpadak, ihauteriak, egun bereziko saioak (Olentzaro, Santa Ageda, San Joanak,...) edo jaialdiak, dira, besteak beste, euskara erabiltzeko aukera ematen duten ekintza nagusiak.

Programaren jarraipena egiteko batzordea eratu da. Batzorde horretan partaide dira HPS, HABE eta programan inplikaturik dauden udalak. Batzorde horren zeregina da herri bakoitzeko esperientzia ikusi eta egiten diren ekimenak, herri bakoitzaren ezaugarri egokituak, batetik bestera eramatea. Hala ere, udalerrri bakoitzak autonomia osoa du bere programa egiteko; bere baliabideak ikusita eta abiapuntuko egoera kontuan izanda, bakoitzak gauzatu behar baitu programa. Tipologia ezberdinetako udalak izanik, famili programaren emaitzak ere desberdinak izatea espero da. Emaitzak, dena den, urtearen amaierarako ezagutuko dira.

LABURRAK

Mari Errauskin opera

Arrasateko San Viator ikastolako irakasle, guraso, ikasle ohi eta 130 ikasle inguruk, *Arrasate Musikal* orkestraren eta ikastolako abesbatzen laguntzaz, *Mari Errauskin Opera* estreinatu zuten Arrasaten, azaroaren 22an.

Ch. Perrault-ek idatzitako izen bereko ipuinean oinarrituta dago opera hau; musika-lana Juan Azurmendik, *Arrasate Musikal* elkarteko zuzendariak, egin du eta testuaren ardura nagusia Juan Luis Lopez Castroren esku egon da. Guztiaren ardura Iñaki Olaizolak izan du, baina bertako guraso eta lankideen laguntza izan du lan erraldoi hau aurrera ateratzeko. 1995-96 ikasturtean abiatu zen proiektua ikastolako musika-saileko irakasleen ekimenez. Musikaz gain gorputz-espresioa eta adierazpena lantzea izan ziren hasierako helburuak. Herrian izandako harrerak eta erakunde publiko zein pribatuen laguntzak bultzatuta, ikastolatik atera eta Arrasaten eta Gasteizen aurkeztu dute opera hau.




Euskal Ikaskuntzen Institutua

Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikaskuntzen Institutuak, HAAE-IVAP erakundearen laguntzarekin, Zuzenbideko liburuak euskaratzeko lanari ekin dio azken hiruzpalau urteotan. Lan horren emaitza zortzi liburu argitaratzea izan da, Zuzenbide Zibilaren arloko bost eta Administrazio-Zuzenbideari buruzko hiru, hain zuzen ere. Liburu hauetan zuzenbide zibilaren zati orokorrak, kontratuei buruzko zuzenbidea, eskubide errealak eta ondasunak, famili zuzenbidea, oinordetza, administrazio-zuzenbidearen zati orokorrak eta antolaketa eta ondasun eta enplegu publikoak izan dituzte aztergai. Arlo juridikoan euskaraz diharduten irakasle, irakasle edo gainerakoentzat material erabilgarria delakoan burutu dute lan hau. Liburuok Durangon aurkeztu zituzten abenduaren 7an Euskal Liburu eta Disko Azokan.

Joxe Azurmendi Otaegi

Joxe Azurmendi euskal idazle eta filosofia irakaslea Zegaman jaio zen 1941ean. Arantzazun egin zituen lehen ikasketak; ondoren, Erroman Teologia ikasi zuen eta Alemanian Filosofia. 1978an Euskal Herrira itzuli zen. *Jakin*eko zuzendari izan zen 1961etik 1963ra.

Udako Euskal Unibertsitatearen eta *Jakin* aldizkariako taldearen partaide eta bultzatzaile izan da. Gaur egun, Filosofia irakasle katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Filosofia fakultatean, eta euskaltzain urgazlea ere bada. *Olerti*, *Anaitasuna*, *Egan* eta *Jakin* aldizkarietan eman ditu ezagutzera bere idazkiak. Poema-liburuak, (*Hitz berdeak*, 1969) idatzi ditu, baina saiakerak eman diote osperik handiena. Zientzia politikoen



alorrean *Gizona abere hutsa da* (1975), *Lazkano Mendizabal* izengoitiaz argitaratua; *Arana-Goiriren pentsamendu politikoa* (1979); *Nazionalismo/Internazionalismoa Euskadin* (1979), etab.; gizartea eta kultur filosofiaren alorrean *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971); *Kultura proletarioaz* (1973); *Mirande eta kristautasuna* (1978); *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991); *Espainolak eta euskaldunak* (1992), etab.; eta literatura-kritikaren alorrean

Zer dugu Orixe-ren kontra? (1976); *Zer dugu Orixeren alde?* (1977); *Iraultza sobietarra eta literatura* saiakerak dira aipagarrienak. Bere produktiorik handiena euskaraz egin badu ere, badu gaztelaniaz idatzirik lanik ere, beti ere saiakera alorrean (*El hombre cooperativo*, 1984). Joxe Azurmendiren azken liburuak *Demokratikoak eta biolentoak* (1997), Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu zen.

KONTUAN HARTZEKO

★ Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?

Urtarrilaren 1etik 15era Barakaldon

Urtarrilaren 19tik 31ra Zarautzen

Bidegileak aurki kalean

Aurki izango dira kalean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak argitaturiko *Bidegileak* izeneko bildumaren bi karpeta berri. Bilduma honen bidez, euskara sustatu, sendotu, zabaldu eta normalizatzeko saioetan eragina izan duten pertsonak, erakundeak eta ekimenak eman nahi dira ezagutzera: idazleak, idazle-taldeak edo eskolak, euskaralariak, euskalzaleak, Lore-jokoak, bertsolaritza, etabar. Bestetik, perspektiba historiko, sozial edota kultural batez landutako euskarari berari buruzko berriak ere zabaldu nahi dira: euskalkiak, batasunaren arazoa, inguruko hizkuntzak, jatorria eta ahaidetasunak, lurraldea, galera-prozesua eta berreskuratzeko saioak, besteak beste.

Orain arte *Bidegile* bildumaren zazpi ale argitaratu dira eta, esan bezala, jadanik prest dira beste bi. Lehenengoa, emakumezkoei eskainitakoa, lau sailen inguruan antolatu da, euskararen sustapenean eta zabalkundearen aritutako hainbat emakumeren berri emateko. Aipatu lau sailok ondoko hauek dira:

- *Emakume Abertzale Batza*, Laura Uruburuk egina. Sorne Unzueta,

Rosa Bustintza, Maria Etxabe, eta Tene Muxika, aipatzen dira, besteak beste, lan honetan.

- *Emakumeak Euskal Antzerkian* Harkaitz Canok idatzia. Beste batzuen artean Katalina Elizegi, Maria Dolores Agirre, Felisa Areitioaurtena, Pepita Aramendi eta Ramonita Mezquita dira honetan jasotako emakumeak.
- *Emakumeak Euskal Irakaskuntzan* izenekoan, Maria Dolores Goya, Pilar Sansinenea, Elbira Zipitria, Maritxu Barriola, Elisabete Maiztegi, Faustina Karril eta beste hainbat emakume hurbiltzen dizkigu Gotzon Egia egileak.



- *Euskal Emakume Idazleak* izenekoak, berriz, Maddi Ariztia, Julia Gabilondo, Ignazia Pradera, Rufina Azkue, Pilar Lekuona, eta, besteak beste, Rosario Artolaren berri ematen digu. Mikel Atxagak egindako lana da azken hau.

Bigarren karpetarako gerra aurreko eta osteko belaunaldien zubi egin duten lau idazle aukeratu dira: alde batetik *Nemesio Etxaniz* eta *Andima Ibiñagabeitia*, Pako Sudupek landutakoak biak. Bestetik, Xipri Alberbide izan da *Piarres Lafitteren* bizitza eta lanari buruzko argitalpenaren egilea eta, azkenik, *Eusebio Erkiagaren* figura Jon Kortazar idazleak landu du. Mikel Atxaga izan da karpeta bien zuzendaria. Berari egokitu zaizkio gaien eta idazleen aukeraketa eta edukiaren gaineko ikuskaritza eta koordinazioa.

Bildumari gagozkiola, berriematea izateaz gain, omenaldi-eskaintza kutsua dauka. Izaera honi sor dizkio ezaugarri batzuk: aurkezpenaren aldetik, dotore eta apaina izatea, biltzen den informazioa iraunkorra izatea, testua material grafiko ugariz lagunduta joatea eta ale berezitueta eskaintzea pertsonaia edo gai ezberdinak.

Expolangues 98

Urtarrilean euskarak, berriz ere, zita bat du Parisen. Hizkuntza eta kulturei buruz urtero egiten diren topaketa garrantzitsuena urtarrilaren 28tik otsailaren 1era bitartean burutuko da *La Villetteko* azoka-eremuan. Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin antolatuko dute erakusmahaia, eta bertan, euskarari buruz bi erakundeok argitaratutako azken berriak izango ditu ikusgai bisitariak; horrez gain, bideoak euskaraz eta beste hainbat euskarri informatikotan aurkitu ahal izango da informazioa. Egun hauetan Parisen hizkuntz komunitate desberdinetako lagun ugari bilduko dela eta, bi mahainguru egingo dira,

besteak beste, Galiziako, Nafarroako, Kataluniako, Euskal Autonomia Erkidegoko, Valentziako eta Balearretako gobernuetako ordezkarien partehartzearekin. Ekitaldi hauek urtarrilaren 29an arratsaldean, izango dira Parisko Cervantes Institutuan. Eremu urriko hizkuntzak eta teknologia berrien erabilera izango dira mintzagai. Bide batez, urtarrilaren 29an, mahainguruekin batera, bertan parte hartuko dutenek teknologia berrien alorrean bere hizkuntzan burututako lana erakusgai izango dute: CD-ROMak, hizkuntzen irakaskuntzarako metodo elektronikoak, etab.

Euskararen Aholku Batzordea

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoa azaroaren 19an bildu zen Jose Antonio Ardanza lehendakaria buru zela. 1996an hasitako bidetik, berritutako Batzorde honek Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren inguruan egin du lan 1997an zehar. Batzorde honetako batzorde-atal bereziek 1997an eginiko lanean oinarritutako plan honen lehen zirriborroa bilkura horretan aurkeztu zen.

1997an lau batzorde-atal bereziek egin dute lan: Toponimiako Batzorde-atalak, Euskal Autonomia Erkidegoko toponimoak finkatu, aldatu eta berreskuratzeko aholkuak eta proposamenak egiten dituen organo iraunkor gisa sortuak; Erabilera Planari buruzko Batzorde-atalak, hainbat eremutako —kirola, enpresa, aisia, erlijioa edo administrazioa— euskararen egoeraren analisia egiten duenak; Euskararen Geroratzeari buruzko Batzorde-atalak, corpora, familia bidezko jarraipena, Nafarroa, Ipar Euskal Herria, euskalduntzea eta alfabetatzea eta hezkuntza aztergai izan dituenak; eta, Komunikabideetako eta Kulturgintza Batzorde-atalak, besteak beste,

prentsa idatzia, irratia, telebista, argialetxeetako produkzioa eta teknologia berriak aztertzen aritu denak.


Batzorde hauen lanari esker, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari buruz oinarritzko ikuspegia eta proposamen zehatzak baditugula esan dezakegu, ondorengo hilabeteetan Euskararen Aholku Batzordeak landuko dituenak.

Bestalde, Herri-administrazioen Koordinaziorako Batzordearen (Hakoba) sorrera, osaketa eta egiten ari den lanaren berri ere eman zen Batzorde Osoan.

Aurrez ezarritako egutegiaren arabera, 1998ko apirilera Hizkuntza Politikarako Sailordetzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren bigarren zirriborroa egingo du, Euskararen Aholku Batzordeak eginiko proposamenak eta Herri-administrazioen Koordinaziorako Batzordeak egungo baliabideei buruz eginiko azterketa kontuan hartuta. Bigarren zirriborro hori Aholku Batzordean eta Hakoban aurkeztu ondoren, hirugarren bat egingo da Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluan aurkezteko.

Lehen begiratuan

Euskal administrazio publikoetako hizkuntza normalkuntza: legeria eta jurisprudentzia hautatua liburuaren argitalpenarekin, herri-administrazioi hizkuntza-normalizaziorako araudia argitaratzeko hartua duen bideari jarraipena eman nahi dio HAEE-IVAPek. Orain arte normalizazio aldetik arautu gabe zeuden administrazio-esparruak jorratu ditu, Ertzaintza, osasun-zerbitzuak, eta administrazio orokorrean eta irakaskuntzan izandako aldaketak ere jaso ditu. Bidenabar, aipatu plangintzari buruzko jurisprudentzia hautatua dago, Epaitegi Konstituzionalak eta Euskal Herriko Epaitegi Gorenak emanikoak.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: